


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA

ARTZAIN ONAREN PLAZA 1



Egilea eta data: artxiboan ez dago jatorrizko proiektua (Jose de Goicoa, 1895?)

Deskribapena

Katedrala inguratzen duten bizitegi eraikinak Jose de Goicoak ezarritako multzo eredu jarraituz proiektatu, eta 1895 eta 1905 urteen artean eraiki zituzten, eraikuntza neogotikoa baino pixka bat beranduago. Lau bloke oso eta San Martin kalera ematen duten bi etxadi aurrealde. Etxadi bakoitza kantoiko edo fatxada bikoitzeko mehelinen arteko etxebizitzek osatua dago. Guztien kanpoaldeek tratamendu bateratua dute. Hala ere, zenbait kasutan fatxadako erritmoen eta barruko propietateen artean desfasea dago. Behe oina, lau goi oin eta estalkipeko oina dituzte. Etxebizitzek fatxadak kalitate handia dute, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienean. Tradizio neoklasikokoak, eragin eklektikoen xehetasunak dituzte baina forma neurritsuekin. Goicoak hemen ordena orokorreko ideia batean zuen konfiantza adierazi zuen, hots, fatxada guztietan seriean eta aldaketarik gabe aplikatzeko proportzioen sistema batean. Maila zehatzago batean harlanduaren profilak eta marrazkia, balaustadako errematea, plazaren iparraldeko arku multzoa, eta arotzerien tonu grisaren eta hareharriaren arteko konbinazio berezia nabarmentzen dira. Eraikin honen alakako hormigoizko begiratokiak 1938koak dira, eta Elizalde proiektatu zituen.

Babes erregimena

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak: Hondarribia kalera ematen duten behe oineko fatxadako harlanduaren estaldurak, eta hormigoizko begiratokiak.
 - B.- Fatxadako elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak, burdineria balkoietan pertsiana tolesgarriak, eta zurezko begiratokiak eta arotzerien jatorrizko formatua.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Artzain Ona" E mailako multzoaren barruan egotearen ondoriozkoak; jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.